

aizkorri!



Aitor Elizegi,

**New Yorken
sukalde
lanetan**

Aldakoneko jaiak



Gora Santiago
eta
San Inazio!

Etorri eta parte hartu

ZIRIBADA
OSTETXE

☎ 94 454 5045

Castellanosall Plaza, 1
40150 OLEBU

I OREGARAI

UNIBERSIA JARDIGARAI

zer ematen dugu? zer ematen dugu? zer ematen dugu? zer ematen dugu? zer ematen dugu?

☎ 94 454 5045
☎ 94 454 5045
☎ 94 454 5045

t i k
t a k

OSUNERO ZADALIK

Lehenengo
13.000h 13.000h eta
13.000h 13.000h

Erretiratu eta 10

Balantze 2 Bida 13.000h
13.000h

Alf. Jesús Fernández Gallegoragaitia

ESTANCO

Herriko Plaza, 1, 40150 OLEBU, B.Z.

Herriko Plaza, 1, 40150 OLEBU, B.Z.

Tel: 94 454 5045

PIZZINERIA

1 aldi abuztuaren pizketatik 4 aldiak 13.000h
2 aldi abuztuaren pizketatik 13.000h
3 aldi 13.000h pizketatik 13.000h

2x1 OSTOERO PIZZAK

☎ 94 454 5045

S C I T T O

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Herriko Plaza, 1, 40150 OLEBU, B.Z.

Tel: 94 454 5045

☎ 94 454 5045

AIKOR!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzketan, Arrekikili, Tximintx) Tf.: 94 452 34 47 e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza, Mari Tere Onaindia, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Zalao Jaka, Jasone Astola, Gotzon Barandiaran, Jose Migel jauregi, Ines Serrano eta Iker Amarika

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



ELKARREKIBEREA
ELKARREKIBEREA

ELKARREKIBEREA
Euskaltzaindia

ELKARREKIBEREA
Euskaltzaindia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Cultura Nafar
Departamento de Cultura



diruz lagundutako aldizkaria

12 Ruper Ordorika



26 Hegalariak futbol areto taldea



22 Edurne Brouard



15 Santiago eta San Inazio jaiak Aldekonen

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 11Gazteen txokoa 12Gurean izan da... Ruper Ordorika 14Gaztea eta... Arrate Gutierrez 15Aldekoneko Santiago eta San Inazio jaiak 20Txotxongilo Eguna, Sondikan 22Edurne Brouard, AEK Egunaren arduraduna 24Larradent Poliklinika 26Hegalariak futbol areto taldea 28Osasuna 29Teknologia 30Musika... "Zerutarrak" 32Sukaldaritza 33Denborapasa 34Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea egin:

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

Bankuko 20 zenbakiak: _____

Diru kopurua _____

Orri hau helbide honetara bidali: Aresti, 2 / 48170, Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Delirium Tremens zantzuak



ZALOA JAKA
(Kazetaria)

Hausnarketarako ariketa zeharo aberasgarria izan leiteke kotxean musikea entzutearena. Sarritan esan ei izan deusiet nire albokoei eguneroko lanerako bide-tarte horrek hamaikaxo zer-pentsatze ematen deustazala. Ez da txantxetarako ez, pentsa egizue! bat-batean, musika aparatua klasiko bategaz hasi jatan belarriak zehatzen: "Ikusi eta ikasi, ez pentsa ezeren beharrik daukazula heltzeko hire mugara...". Bai, bai, gogoratuko dozue: "Entzun, argi eta garbi entzun, hire inguruan entzuten diren gauza guztiak entzun. Heldu, ondo heldu, ez galdu bidean inoiz berriz ez dituzun edukiko gauzak". Abestiari musika jartzen hasi zarie, ez ala? Aspalditxo neukala nik abestia nire entzutekoen artean baina, egunotan, euskal rockaren klasikoei astindua emon deutso espero ez genduan batek: Javier Solanak. Beituzue! Montenegroko erreferenduma Euskal Herrian praktikan jartzea delirium tremensa litzatekeela esan euskun Solanak, independentziaren aldeko botoek irabazi eta ordu gitxitara. Kotxea gidatzen ninoiala zera pentsatu neban: "Argi dago, Europar Batasuneko Atzerri Politikarako eta Segurtasunerako goi Komisario izateak ez dauala ezelan be

osasun-gaitz eta desoreka horretatik aske itziten pertsonaje!". Desorekea eta urduritasunaren lekuko izan ziran berbok. Trantzean jartzen dira zenbaitzuk herri-konsulta edo independentziaren aldarriak entzuten dabezanean eta, ordukoa, horren adierazle izan zan.

Montenegroko herritarrek euren etorkizuna erabakitzeko izan daberen eskubidea eskatzen dabe euskal herritarrek be. Ez naz ni hemen euskal herritarren bozeroaile izango, beharbada, euskal herritar guzti guztiok ez dabelako montenegroarrek erabaki daberen independentziaren aldeko apostu bera egiten. Baina, kontua da, independentzia zein anexioaren alde bozkatzeko eskubidea izan dabela. Herrioi dagokigun eskubide hori da, hain zuzen be, euskal herritarrek eskatzen dabena.

Edari alkoholodunek eragindako desoreka honek protagonista bihurtu dau Solana, baina gogora ekarri dau euskal rockaren klasikoak famatu egindako doinuak. Euskal musika taldea omendu ere! Kotxean ninoiala zera bururatu jat: "Hobe Solana jaunak kantuak dinoana

"Trantzean jartzen dira zenbaitzuk herri-konsulta edo independentziaren aldarriak entzuten dabezanean"

entzuzungo baleu; subiranotasun, herri-nahi eta kontzeptu demokratiakoetan askotxo irabaziko leuketa". Bruselako bere bulegoaren lau horma hareetan, 80ko hamarkadako euskal rock talde baten doinuak sekula ez dirala entzun eta ez dirala entzuzungo garbi daukat, baina ez dot nik itxaropenik galduko. Solana jauna; "ikusi eta ikasi, entzun eta garbi entzun", Herriei dagokien eskubidea praktikan jartzea ahalbidetu jakelako, montenegroarrek independente dira. Euskal Herriari noz aitortuko jako eskubide hori? Laster. Seguru nago.

2006ko maiatzaren 4a

Mundiala



FERNANDO LARRONDO
(Irakaslea)

Internetetik atarata. Egunotan ganeanean dogun futbol munduko kopa era guztietako senar-emazte eta bikotekideen arteko hartu-emonak hondatzen hasi dala egiaztatzen dauan barri definitiboa: Kroaziako sex-shopetan bibradore edo kontsoladoreen salmentek gorakada itzela euki dabe, normalean salduten danarekin konparatuta %20 gehiago. Asko edo gitxi dan batek daki, izan bere ez naz kroaziarren holango ohituretan jakitun. Baina nago ez ete dan hau arren hondamendiaren ataria izango. Honegaz batera bada nagusitasun horren gainbehera hor berton daukagula dinoan beste barri bat: berrogeita urteko senarohiak zubipean edota barriro gurasoenean bizitzera kondatzen dabezaren sententzien uholdea hainbat epaitegitara eta, era berean, aurrezki-kutxetara ailegatu dala.

Aztertu eta buztartu dagiguzan egoera bi honeek sekuentzia arin batez: Espainiako selekzioak mundiala irabazi dauala eta bikotearren hartu-emonaldatsgora, banaketea, dibortzio-expressa, umeak bitartean, etxea - hipotekaduna jakina - biona, gaurko legedi zentzudunaren arabera ama eta seme-alabak etxean beroneen autonomia finantzarioaren eguna heldu arte, mantenu-pentsioa ordaindu behar, hipotekea ere bai, beste etxe baterako nahikorik ez soldaten egitura molekularra txiklearena ez dalako, eta... DANBA!, koktelaren esplosinoak zubipe edota amaren altzorantzako bidean jarri. Izan bere, merkatu inmobiliarioak ezin dau futbolak eragindako bibrazio mundialak eroangarri egin.





Zamudioko liburutegia kalera atera da

Eusko Jaurlaritzako Ondarearen Zuzendaritzak Irakurri kanpaina jarri du abian, liburutegien erabilera eta irakur zaletasuna bultzatzeko. Zamudioko liburutegiak kanpaina horretan parte hartu eta ekitaldi bi burutu ditu ekainean.

Horrela, bada, hilaren 21ean karpa bat jarri zuten Agirre Lehendakariaren plazan eta bertan liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak eta bibliografia-funtsak ezagutzera eman zioten publikoari. Hilaren 22an

liburutegirako bidea seinaleztatu zuten eta ekintza horretan parte hartu zuten umeei irakurketa-gida bana eman zioten. Beste alde batetik, tatuajeak oparitutuko dizkiete udan liburuak hartzen dituzten umeei.

Zamudioko liburutegiak blog-a du sarean pasa den martxoaz geroztik: www.zamudioliburutegia.blogspot.com

Argazkia: Amagoia Guezuraga

Atzerriko dantza agerraldia, Aldekonen

Urtero bezala, aurten ere atzerriko dantza agerraldia egingo dute Derioko Aldekone auzoko jaietan. Hori uztailaren 31n izango da eta bertan Gjesdal (Norvegia) herriko Gjesdalringen dantza taldeak parte hartuko du. Dantza agerraldia Bakioko Itxas-Alde dantza taldearekin batera antolatu dute.

Azoka ekologikoa, Larrondon

Uztailaren 9an, azoka ekologikoa izango da Larrondoko pilotalekuaren ondoan. Azokaren antolatzaileak Loiuko Udala eta Ekolur elkarte dira eta BBK-k diruz lagundu du. Guztira, 37 salgune jarriko dituzte; 30etan produktu ekologikoak salduko dituzte, eta beste zazpitan, artisauek egindako lanak. Han ikusi eta erosteko moduan izango diren produktu ekologikoen artean hauek aipa daitezke: arrautzak, ardoa, gazta, okela, konstrebak, eztria eta taloa.

Kontsumo txikiko bonbillen banaketa, Derion

Derioko Udalak eta Energia Euskal Erakundeak kontsumo txikiko bonbillak banatuko dituzte herritarren artean. Banaketa uztailaren 4an izango da merkatu txikia egiten den lekuan, goizeko 10:30tik aurrera.

cianoplan s.a.

Lizentziatutako teknologian 100 urte
48101 Zamudio
Telefonoa: 94 452 11 17
bil@cianoplan.com

global printers

- Inprimatze eta pluma laguntza.
- Kartulak koloretan eta zifre.
- Digitalizazio eta bakoiztatze, automatizazio eta laguntza.
- Fotokopiatze koloretan eta zifre.
- Eta dezberdinolatu koadernakolatuak.
- Plastifikazioak.
- Eta zerbitzuak.

ACQUINTURA

WIKIPIEDIA

WIKIPIEDIA

WIKIPIEDIA

ALBERTO

Luzenberrirako eta lan berritzaile. G.
Telefonoa: 94 452 11 17
48101 ZAMUDIO (Bizkaia)

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEAK
JAUNARTZEAK**

Arteaia auzoa, 119
Telefonoa: 94 452 11 18
ZAMUDIO

Bar - Restaurante

Realgami

Realgami Bar
Realgami Bar
Realgami Bar

Realgami Bar
Realgami Bar
Realgami Bar

ZAMUDIOKO HSTANBIA

Talokak, ilintza eta oporlekak

Talokak, ilintza eta oporlekak
Telefonoa: 94 452 11 17
ZAMUDIO

Saritutako argazkietariko bat



Sondikako Argazki Rallyaren sariak banatu dira

Maiatzean Sondikako Argazki Rallyaren sari banaketa izan zen Kultur Etxean. Bertan hainbat lagun batu ziren, eta horien artean Unai Aurrekoetxea kultura zinegotzia eta Jorge Iglesias CIALIT enpresako ordezkaria izan ziren. Argazki Rallya Sondika Goiri argazki taldeak antolatuta du eta txapelketan 35 argazkilarik hartu dute parte.

Sariak banatu baino lehen, argazki taldeko Igor eta Jonen egindako dokumental

bat ikusi zuten eta, horren ostean, epaimahaiak aukeratutako diapositiba eta argazki digitalen bildumak.

Aurtengo Rallyaren irabazleak hurrengo hauek izan dira: Oscar Fuentes Argazki Digitalen kategorian eta Lourdes Diego Lopategi eta Antonio Ibarra Diapositiben kategorian.

Testu eta argazkia: Amagoia Guezuraga

Txorierrri Institutuko areto-futboleko nesken taldea, txapelduna

Maiatzean Emakumezkoen Areto-Futboleko Koparen azken partida jokatu zen Larrabetzun eta Txorierrri Institutuko areto-futboleko nesken taldea txapelduna izan zen bertan. Koparen barruan sei partida jokatu dira, eta hurrengo talde hauek parte hartu dute txapelketan: Elorrio, Gurutzeta, Boskozaleak (Barakaldo), Alazne (Barakaldo), Berriz eta Txorierrri.

Gabilondo mojak Pereirako errealitatea hurbildu du Txorierrira

Maiatzean, Mila Gabilondo ahizpa pasiotorra Txorierrin izan zen, Behar Bidasoa erakundeak gonbidatuta. Gabilondo Derioko udaletxean bildu zen Pereirako (Kolonbia) garapen gunean parte hartzen duten udalen ordezkariekin. Udalok Loiu, Derio, Sondika, Zamudio, Lezama, Urtuella eta Bermeo dira eta Pereirako garapen gunean egiten dituzten hainbat proiektu babestu dituzte 2006an. Proiektuon artean daude emakumeentzako lanbide heziketa zentrotako formatzaileen soldatak, erizaindegia, familetan esku hartzeko programa eta tailerretan emakumeek ekoiztutakoa saltzeko lokala erostea, besteak beste. Gabilondok Kolonbia eta Pereirako errealitatearen berri eman zien udalen ordezkari.

El Magister
 MARMOLERIA
 MARMOLDEGIA
 Tel: 94 432 00 11

MARMOLERIA TXORIERRI MARMOLDEGIA
 Sakalde eta bathugeletako harriak, fitoak, urbariak eta ailerriak.
 Txorierrriko Ind. P. 18 - kalea 2
URTI ZAMUDIO (BOKIA)
 Tel/Fax: 94 608 01 41 - 2

GORBELA NERTZERIA
 Gorbela fabrika 7
 48100 BERRIZ
 Tel: 94 432 00 11

Testua eta argazkia: Ines Serrano
J. ELORRIAGA
 Puzteko lantegi-erakundearen buruak eta zuzendaria
 BERRIZ
 Tel: 94 432 00 11

IKASGELA
 BERRIZ
 Tel: 94 432 00 11

GARRAJOLARIA
 Miguri Argi Ikar
 ANDRA MARL 19
 BARRAKALDO
 Tel: 94 432 00 11

ANKAPALD
 L. GARRAIBERTE GIL
 Tel: 94 432 00 11

GAZTE ERITZAILERIA
 BARRAKALDO
 Tel: 94 432 00 11

Txorierriko Pilota Txapelketaren finalak, hunkigarriak

Partiden ostean, auto istripuz hildako Larrabetzuko hiru gazteei omenaldia egin zitzaien

Ekainaren 4an 2006ko Txorierriko Pilota Txapelketaren finalak izan ziren Larrabetzuko frontoian, Olarreta Pilota Elkar-teak antolatuta. Txapelketan Txorierriko ia herri guztietako pilotariek parte hartu zuten; Sondika, Loiu, Derio, Zamudio eta Larrabetzuko 64 gaztek, hain zuzen ere. Aipatzekoa da Loiu Pilota Eskolako egindako ahalegina, izan ere, eskola urtar-rilean jarri zen martxan eta txapelketan jokatu zuten bertako sei pilotariak.

Finalak lehiatsuak izan ziren maila guztietan. Horrela, bada, Jon Sanchez eta Mikel Lopetegi zamudioztarrak Eleder Ojinaga eta Iker Garcia derioztarrei 18-4 gailendu zitzaizkien lehenengo partidan. Sakeak erraz irabazten lagundu zien Zamudiokoei. Ume kategorian ere lehia gogorra eta tentsio handia egon zen. Bikote biak Deriokoak ziren: Jon Ordeñana eta Markel Landa Arkaitz Ladero eta Beñat Zaloren kontra. Lehenengo bikoteak 18-15 irabazi zuen. Hala ere, laurok duten zaletasuna argi erakutsi zuten jendearen aurrean.

Gaztetxo mailan, Zamudioko eskolako lau pilotarik jokatu zuten finala: Ugaitz Atxutegi eta Peio Mendizabal, Lander Aretxabaleta eta Aitor Ugarteren kontra. Emaitza: 18-10. Ugaitzek eta Peiok oso partida serioa egin zuten, eta aukera izan zutenean tantoa ondo amaitu ere bai. Lau pilotarien lana txalotzekoa izan zen orokorrean.

Azkenik, Zamudioko pilotariak aritu ziren kadete mailan. Aimar Olabarrieta



Testua eta argazkiak: Ines Serrano eta Iker Amarika

eta Borja Puentek 18-13 galdu zuten Asier Aurre eta Alberto Markosen aurka. Hori finaletako partidarik gogorrena izan zen.

Partidak bukatu ondoren, auto istripuz hildako Alain, Iñaki eta Gorkari omenaldia eskaini zitzaien. Hirurak Olarretako pilotariak izan ziren. Hainbat jolaskide eta lagun kantzara irten ziren euren argazkiak zeramatatzela, frontoiko sarreran irakur daitekeen bertsoa bota eta txalo zaparrada beroarekin adierazi zuten gazteak beti izango direla eurekin Larrabetzuko frontoian, baita guztien gogoan eta bihotzean ere.



Carnicería Charcutería
IMAZ
LARRABETZUKO
charcuterriak

ZAMUDIO DEKORAZIUN-LANBIDEEN ETORRI
LARRABETZUKO
SANTI MIAMI
LARRABETZUKO

PATKI 180 12
LARRABETZUKO
Mahayo
LARRABETZUKO

BARBERIEN - ERROJEN BENDA
Ruben
LARRABETZUKO
LARRABETZUKO

Bocateria
otarteko
Pizzeria
LARRABETZUKO



Zamudioko Kamara Korala

Giro itzela, Lagatzu Egunean

Lagatzu Zamudioko Euskera Alkarteak Lagatzu Eguna ospatu zuen ekainaren 24an, zapatuaz. Goizean kalejira eta poteoa egin zuten tabernarik taberna, fanfarre batek eta Bertokoko neska-mutilek girotuta. Horrezaz gainera, herri bazkaria izan zen eta bertan 175 lagun bildu

ziren. Bazkalostean, euskal kantak abestu zituzten lagun-giroan. Beste alde batetik, Lagatzu elkarteak saria eman zion Zamudioko Kamara Koralari. Galardo hori urtero ematen dute eta euskararen alde lan egiten duten elkarte eta pertsonen beharra saritzea du helburu.



TXAKOLINA
LOISELLE

Barandaketa, 101
91.40.400.40.41
91.47.87.87.84

Rikardo Txakolina
Armentak 101

Vitoria-Gasteizko Euzkoaren Itzura, guretzat eta guretzat
LAGATZU EGUNA
2014. EKAINAREN 24

TORREKO TXAKOLINA

1975-1985 Euzkoaren Itzura
TORREKO TXAKOLINA
Armentak 101
91.47.87.87.84

Iturri: Armentak 101, 91.47.87.87.84
Pedro-Maria Durandak 91.47.87.87.84
Bazkaria 91.47.87.87.84

Guerrilla

GUERRILLA, BERRA, BERRA, BERRA
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

ADARTE KANTERA

Formaketa
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

CIBONA
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

LENAR URTEGONDO
ALABARRA

Alabarra Urtegondo
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

DERIO
LAGATZU EGUNA 24 ekainaren
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Gurui

Plaza 1, 1-1A
01700
[Armentak 101, 91.47.87.87.84]

Goitioltzako jaiak, euskaldunak eta parte-hartzaileak

Uztailaren 8an eta 9an. Goitioltzako jaiak ospatuko dira Lezaman. Jai batzordeak egitarau ezin hobea egin du. Jai herrikoi, euskaldun eta parte-hartzaileak prestatu dituzte, auzokide guztiek gozatzeko modukoak. San Fermin eta Mungiako jaien antolatzaileak urduri ei daude.

Uztailaren 8a, zapatua

10:00: Txupinazoa

10:30: Txakolin bira Lezamako txakolindegietatik, Zorritzetan euskara elkartearen eskutik

13:30: Omenaldia Alaitzi

15:00: Herri bazkaria

19:00: Herri olinpiadak

23:00: Kontzertuak: Desoreka eta Sei Urte. Ostean, erromeria, Izotz taldearen eskutik

Uztailaren 9a, domeka (Baserritar Eguna)

11:30: Dantza agerraldia, Gurutze taldearen eskutik

13:00: Txakolin eta pintxo dastatzea, Zorritzetan elkartearen eskutik

16:00: Mus Txapelketa

17:00: Umeentzako jolasak

19:30: Bertso Saio Mundiala: Etxahun Lekue, Sustrai Kolina, Amets Arzallus eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Arkaitz Estiballes

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean Larrabetzun maiatzean ospatu zen Koadrilen Egunaren inguruko artikulua argitaratu genuen 6. orrialdean. Artikuluan Koadrilen Egune Hori Baik antolatu zuela aipatu genuen, baina informazioa ez da zuzena. Jakinarazi digutenez, Hori Bai gaztetxean sortu zen ideia da Koadrilen Egune; hala ere, horren antolaketan Hori Baik ez ezik uriko 19 koadrilek ere hartu zuten parte.

Lezama Bizirik legeztatuta

Lezama Bizirik koordinakundea legeztatu eta herritarren aurrean aurkeztu zuten ekainaren 24an, zapatuaz. Plataforma Lezamako herritar eta elkarte batzuek eratu zuten pasa den urteko ekainean, eta horrek, helburutzat hartu zuen Bilboko Metropolitiko Lurralde Plan Partzialak herrian izango duen eragina jendeari jakinaraztea eta planari aurre egitea. Koordinakundearen sorrera ospatzeko, ibilbidea egin zuten Goitioltzako errotetatik, eta horren ostean, etorkizuneko erronken berri eman zuten.

Manifestazio isila Zamudion, "Konponbide garaia da" lelopean

Ekainaren 16an, barikua, manifestazio isila egin zen Zamudion, herriko hainbat elkarten deituta. Manifestazioak "Konponbidea garaia da" zuen lelotzat eta bertan 100 pertsona inguru batu ziren. Manifestazioak hurrengo helburu hau zuen: alde batetik, Zamudion azken hilabeteotan izandako gertaerak salatzea eta, beste alde batetik, Euskal Herriak bizi duen momentuaren gaineko gogoeta egin eta konponbidearen aldeko apustua egiteko garaia dela aldarrikatzea.

Sei Urte taldea



AMAIRI ARETXETA
 100% EUSKAL
 100% NATURAL
 100% ORGANIKO
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI

ESTRELLA
 100% EUSKAL
 100% NATURAL
 100% ORGANIKO
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI

ZAMUDIO MOTOR

94 452 1616
 94 452 1848

Md. Zamudio
 Pk. 4, Zamudio
 48100 Zamudio
 BIZKAIA

Orma Ondo, s.a.

100% EUSKAL
 100% NATURAL
 100% ORGANIKO
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI

BIDE GORRI

100% EUSKAL
 100% NATURAL
 100% ORGANIKO
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI

BARIBIDEA

100% EUSKAL
 100% NATURAL
 100% ORGANIKO
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI
 100% BERRI

Atzerriko hizkuntza, sorterrian ikasi behar

Hizkuntza bat ondo ikasteko biderik onena haren sorterrira joan eta bertakoekin harreman izatea da, duda barik. Eta oporraldia baino sasoi egokiagorik ez dago hori egiteko, gainera. Txorierriko hizkuntza-akademiek atzerrira hainbat bidaia eskaintzen digute, inguru berriak ezagutzeaz gainera, hizkuntza hobetzeko. Larrabetzuko Ikasgela akademia ere horretan dabil.

Olatz Amarikak, Ikasgela ingeles-akademia ireki zuen duela ia urte bi eta atzerrira lehendabiziko bidaia aurtengo Aste Santuan egin dute; Londredera, hain zuzen ere. Akademiak 40 ikasle ditu eta bidaian 12 urtetik 16 urtera bitarteko zortzi ikasle parte hartu zuten. "Helburua, ikasleek, bertan zelan hitz egiten den jakitea izan da, hizkuntza nondik datorren jakin dezatela", esan digu Olatzek. Horretarako, hainbat ariketa erraz egin dute: metroan txartelak hartu eta afaltzeko orduan jatekoak eurek eskatzea, esate baterako. Turismoa egiteko astia ere izan zuten eta zenbait leku bisitatu zuten; Buckingham Palace eta Londreseko Dorrea, haien artean. "Oso pozik etorri ziren eta beste bidaia bat egiteko gogo bizia dute. Horrezaz gainera, hobekuntza nabaritu diet, izan ere, klasean hobeto ari dira hitz egiteko orduan eta galdera pilo bat egiten dute. Hainbat gauzak konturatu dira".

Ingelesa hobetu nahi izanez gero, bisitatu behar den lehenengo herria Inglaterra dela argi du Olatzek, "bertan sortu delako eta horren ondorioz, ingeles onena eta garbiagoa delako. Hori menperatuta eduki ondoren, ikaslea prest dago, adibi-

Ikasleak, horien amak eta irakasleak London's Eye-n



dez, Estatu Batuetara joateko. Estatu Batuetan oso ingeles itxia egiten dute, hitz egiteko era ezberdina da".

Denbora eza dela-eta, ezin izan du bidaiarik antolatu udako oporretarako, hala ere, buru-belarri dabil horretan eta datorren ikasturteari begira, ikasleei auke-

ra hori eskaini ahal izatea espero du. "Hango familia batekin denboraldi batean bizi izatea aukerarik onena da, hizkuntza hobetzeko. Hondartzara joatea, erosketak egitea... Azken batean, bertan egiten dugun bizimodu bera egitea, baina euskaraz barik, ingelesez,".

Mamen Martzaria

larrinduria **MAMEN** martzaria

Balboa Indurain, 6. Dorre. P. 489120105 | 949 77 20 20

TABERNA

MENDIA

ENTRADA DE ESTACION

Mendi Indurain, 11 | 48912

Teléfono: 94 984 04 17

IMPORTACION Y VENTA

ALUMINIA

SEMPRE VAMOS DE TABERNA EN EL CENTRO

SEMPRE VAMOS DE TABERNA EN EL CENTRO

Teléfono: 94 984 04 17

Teléfono: 94 984 04 17

TEL SL

TEL

TEL

SAN ISIDRO

ESCOLETA DE INGENIERIA

ESCOLETA DE INGENIERIA

ESCOLETA DE INGENIERIA

GOIZOTZ

Janari izozten denda

Janari izozten denda

Janari izozten denda

du geuntsan zeu zarela Euskal Herriko musikari erdaldunak euskal mundura gonbidatu zituan lehen.

Bixente da nik asko estimatzen dudana musikaria eta erantzun honek aitortzeko behintzat balio dezala.

Hori esanda (kar kar) ba ez dakit zer gehiago esan... Musikak badu dohain hori. Musikariak komunikatzen ahal dira berbertaren gainera, eta niretako zeharo naturala izan da beti jatorri ezberdinetako musikariek ibiltzea. Orain Jon Pirisekin ibiltzean, berriz, oso garrantzitsua zait bera euskalduna izatea. Badut uste beste xamurtasun batera ailegatzen garela eta nik berba gehiago (!) egiten ahal dut eskenatokian.

Hasikeran, rock, pop eta folk anglosaxoia eta aita Donostiaren kantutegia erabiltzen zenduzan eta gainontzeko gehienak punka. Azkeneko bi diskoak, bata mugalariekaz eta bestea hiru trukuekaz atara dozuz.

Oso mundu ezberdinak izan arren niretako gauza bera dira, nonbait. Niretzat txanpon beraren bi aldeak dira neuk osatutako kantutak eta kantu zahar horiek. Beste diziplina modu bat eskatzen du kantu zaharrak. Dagoeneko osaturik datorkigun zeozer

“Kantu zaharrak osatzea askotan sormen lana besterik ez da. Baina sormen lan hori ez da abiatzen “nitasun” batetik, baizik eta “aburu kolektiboa” edo antzeko zerbaitetik”




barruratzea eta zehazki interpretatzea... zehazki-edo, zeren eta kantu zaharrak osatzea askotan sormen lana besterik ez da. Baina sormen lan hori ez da abiatzen “nitasun” batetik, baizik eta “aburu kolektiboa” edo antzeko zerbaitetik. Gainera, inspirazio iturri itzela izaten dira niretako.

Esan Ozenkigaz Gaur argitaratu zenduan eta osteko guztiak desagertu barri dan Metakegaz. Gero eta errazagoa barik, gero eta gaxagoa da diskoak argitaratzea? Ez dut uste. Diskoak grabatzea askoz xamurragoa da orain lehen baino. Gauza da diskoak bere balorearen puska haundi bat galdu duela... Edozeinek graba dezake etxean disko duin bat gaur egun, baina zeinek entzuteko? Denok eduki ditzakegu etxean bizitza osoan entzuten ahal ditugunak baino disko gehiago: Internetetik jasotak, banku opariak, aldizkarietako datozenak... Diskoetxeen egitekoa aldatu da urte-


etan zehar, gaur egun grabazio etxe baino gehiago zabalkunde eta marketing guneak dira eta hortik irautea zaila da. Zoritxarrez, Metak galdu dugu, bai, baina proposamen berriak aterako dira.

1980an Hautsi da anphora atera zenduan, Bernardo Atxagaren berbak erabili zenduzan eta geroztik, batez be Atxaga eta Sarrionandiaren testuak kantatu dozuz; era berean, Pamiela argitaletxekoa zara. Zer deritzozu egungo euskal literaturari?

Labur esateko, uste dut euskal literaturan be eskaintza eskaeratik gora dagoela. Produktzioa haundia da eta ez dakit ba ote den horri eusteko adina irakurle. Badugu irakurle goi saiatua eta oso fidela baina euskararen inguruko eginkizun guztietan larri ibiliko gara beti. Minoria gara geure herrian bertan, eta ganoraz jokatu behar dugu.



Hotel Tryp Sondika



1. AMARON 2010-2011, 2. 2011-2012, 3. 2012-2013
 4. 2013-2014, 5. 2014-2015, 6. 2015-2016
 7. 2016-2017, 8. 2017-2018, 9. 2018-2019

TRYP

HOTEL



Arrate Gutierrez, estetizista

Epilazio era berriak

Derioko Arteaga edifizioan egiten du lan Arratek, bere espezializazioa "epilazio neurosedantea" da. Gehiago jakin guran azalpen batzuk eskatu dizkiogu gazteari.

Azaldu mesedez labur zer den "epilazio neurosedantea"?

Estetika barruan esperientzia berria da. Era naturalean egindakoa, ez traumatikoa, masaje baten bidez egiten dena, eta bide batez tentsioa eta estresa jaisteko balio duena. Epilazio tradizionala erasokorra da, metodo honekin oster, epilazioaz gain azalaren garbiketa lortzen da, tentsioetatik askatuz eta gorputza errelajatur

Nondik dator metodo hau?

Arte bat da, antzinako errezeta egiptiar batean oinarritutako baltsamoa du oinarritzat, azukrea, ezitia eta limoiaz hobetuta. Uraz kentzen da eta eman baino lehen apur bat berotu behar da. Egia esan epilazioa eta masajearen nahasketa da. Tratamendu ostein edozein krema eraginkorra izango da.

Zein da bere sekretua?

Atzamarrekin astiro-astiro azal gainean egitea, masajeatzen den bitartean tiratuz. Ondo eginez gero, biloa berriro agertu arte denbora gehiago pasatuko da, eta geroago

eta finagoa egingo da. Metodo honekin folikulitis agertzea ere eragozten da.

Zer da egin behar dena?

Baltsamoa berotu gorputzaren tenperatura hartu arte, horrela bola txiki bat atera dai-

"Epilazioa antzinako errezeta egiptiar batetan oinarritutako baltsamoa du oinarritzat, azukrea, ezitia eta limoiaz hobetuta"

teke. Bolatxoa ur tanta batzuekin malgualgo bihurtu.

Esku batek azala tente mantentzen duen bitartean, besteak pasta zabaldu behar du biloaren norantza berean. Hileak ateratzen ez badira kontrara masajeatu daiteke.

Inportantea da ez kentzea tiratuz bere osotasunean, era tradizionalan egiten den legez, zeren gauza ez da bakarrik ileak eraztea, masaje efektua ere lortu behar da. Atzamarren mugimendurekin pasta leku aldatu behar da.

Gelditzen den apurra uretan bustitako kotoi batekin kentzen da eta azkenean olio kapa fin bat ematen da.

Zure ustez zeintzuk dira abantailak?

Biloa askoz gutxiago hasiko da, finagoa, zabalagoa eta kolore argiago batekin. Bestetik, bero berotan egiten ez denez, ez da erredurarik sortzen, ez hematomarik. Azal delikatuetan eta gorputz osoan egin daiteke.

Barize arazoak dituztenen kasuan edo zirkulazio okerra edo haurdun duden bezeroen artean %90ek arazo barik egin dezakete. Gainera %100ean naturala da, alergia eta irritazio arazo gabekoa.

Testua: Bestorrene



Bisitatu gure bloga
www.blogari.net/tximintx

ARANTZA ANONDARAIN LASA
 COMERCIALIZADORA

Teléfono: 945 24 11 11
 C/Alfonso XIII, 10 - 48002 Vitoria

945 24 11 11
 C/Alfonso XIII, 10 - 48002 Vitoria

Santiago eta San Inazio, Aldekonen



Uztailaren 24tik 31ra bitartean, Santiago eta San Inazio jaiak izango dira Derioko Aldekone auzoan. Bost egun zehar ume, gazte zein helduei zuzendutako hainbat ekitaldi egingo dira eta horien artean hurrengo hauek aipa daitezke: umeentzako jolasak, tortilla eta paella txapelketa, erromeriak eta herri bazkariak. Horrezaz gainera, Euskara Egunaren 2. edizioa ospatuko dute uztailaren 30ean, igandean.

Uztailak 24, astelehena. Santiago bezpera

- 16:00: Jaien hasiera
- 18:30: Umeentzako jolasak, Gaur Jaia taldearen eskutik
- 21:00: Tortilla txapelketa
- 23:00: Gau dantza Laiotz taldearen eskutik

Uztailak 25, asteartea. Santiago

- 12:30: Meza nagusia
- 13:00: Bike-trial erakustaldia
- 14:30: Paella txapelketa
- 18:30: Dantza agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik

20:00: Erromeria, Erdizka Lauetan taldearen eskutik

Uztailak 26, asteazkena. Santa Ana

- 12:30: Meza nagusia
- 13:30: Triki-poteoa

Uztailak 30, igandea. San Inazio bezpera-Euskara Eguna

- 11:00: Kalejira, Sugarri fanfarreak girotuta. Ospakizuna
- 11:30: Herri hamaketakoa
- 12:00: Triki-poteoa

- 15:00: Herri bazkaria
- 18:30: Koadrilen arteko lehiaketa
- 21:30: Txixiburduntzia
- 23:00: Gau dantza, Trikizio taldearekin
- 03:00: Diskoteka

Uztailak 31, astelehena. San Inazio

- 12:00: Meza nagusia
- 13:00: Nazioarteko dantzak. Omenaldia herriko nagusiei
- 15:00: Herri bazkaria
- 19:00: Idi probak
- 21:00: Los Txikis



OSTUNDAK
 Auzoaren Kultur Erakundeak
 Auzoaren kultura eta erakundearen jardurekin erlazaturik dagoen
 erakundearen informazioa aurkeztu.
 Ostundak Auzoaren Kultur Erakundeak
 Auzoaren Kultur Erakundeak

LORE BERRIA
ILKAPARRA
 LORE BERRIAK
 ERKIDETZEN DUTU
 ERKIDETZEN DUTU
 ERKIDETZEN DUTU

MARFRE
DEFID
 MARRFRE DEFID
 MARRFRE DEFID
 MARRFRE DEFID

egurrezko zein diseinuzko aulkian”

“NBE en egindako erakustaldia arrakastatsua izan da: 2.000 zerbitzu baino gehiago eman ditugu”

zehatza, baina, zenbakiei erreparatuz gero, 400 zerbitzu baino gehiago eman ditugu egunero; hau da, normalean ematen direnak baino 100 gehiago.

Gastronomia arloko komunikabideentzat ere bazkaria egin genuen NBEko sukaldetan. Bazkari ederra izan zen: 12 jateko eta 10 ardo -txakolina eta Arabako Errioxako ardoak- zerbitzatu genituen egun hartan. Eta turismo arloko jendeari zuzendutako afaria eman genuen Rockefeller Center-en. Afaria sei jatekok osatu zuten. Beste alde batetik, agur-cocktela ere prestatu genuen NBE en... Bazkariak eta afariak kontatuta, 2.000 zerbitzu baino gehiago eman ditugu guztira.

Sukaldaritzaren landua ez ezik, euskal sukaldaritzaren tradizionala ere ezagutzera ematen ahalegindu zarete. Zeinek izan du arrakastarik gehien?

Gakoa sukaldaritzaren motan baino gehiago produktuan dagoela uste dut. Ezberdintasun kulturalak daudenean, jendeak produktu jakinak nahiago izaten ditu besteak baino. Adibidez, hegaluzea gustatzen bazaio, berdin dio era modernoan edo tradizionalan prestatua badago. Han edo



Aitor Gaminiz jatetxearen sukaldetan

“Euskadiko sukaldaritzaren eta Kataluniakoa bata bestearen ondoan hazi dira eta bien arteko trukea dago”

zein eratan jaten zituzten txipiroiak, proposatutako modu guztiak gustatzen zitzaizkien... Oilaskoa ere arrakastatsua izan zen...

Eta mahaikideak gastronomian adituak izango ziren... Ala kalean bertan sandwicha hartzen duten etarikoak?

Enbaxadorek eta jakitunak izango ziren gastronomia arloan, ziur asko. Izan ere, euren lanaren ondorioz bileretan eta bazkari ederretan parte hartu behar izaten dute... Tarteko maila zegoela esan dezakegu.

Lapikokorik prestatu duzue?

Bai, indabak, marmitaren bat... Patatak arrainarekin, okelarekin... NBEkoek produktu zerrenda bidaltzen diete erakustaldi gastronomikoan parte hartzen duten guztiei, eta arau batzuk ematen dituzte: lekadun mota bi izan behar dira, hainbat barazki, zenbat frutazko postre... Zergatik? Hainbat kulturatako lagunak izaten direlako eta gerta daitekeelako, adibidez, batek txerrikirik ez jatea, edo barazkijalea iza-

An advertisement for Hästens furniture. It features a large, plush sofa with a patterned base and a dark, textured top. The sofa is set against a light background. The Hästens logo is in the top left corner, and the text 'ARTEAGA koltxol-denda' is at the bottom. The phone number '94 454 51 47' and the location 'BERIO' are also present.

Hästens
Guztira zerbitzatu izan

ARTEAGA koltxol-denda
Berio Seminaris • 94 454 51 47 • BERIO

tea...

Zein postutan dago euskal sukaldaritzaren mundu mailan?

Hiru onenen artean, zalantza barik. Beno, gaur egun garrantzi handiko sukaldaritzak bi daude: "euskal-katalana" eta ekialdekoa... Ekialdeko sukaldaritzaren barruan, japoniarrak arrakasta handiagoa du Estatuan, baina munduan vietnamdarra eta tailandiarra preziatzen dituzte gehiago... Jatekoak hartzeko era desordenatuegatik, plateretan oso errazio txikiak aurkezten direlako edota platerak aurkezteko moduegatik, beharbada.

Eta Frantziako sukaldaritzari dagokionez?

Hori sukaldaritzaren klasiko, burges eta garestiarekin lotzen da; euskal sukaldaritzak, berriz, beste kontzeptu hauekin izaten du zerikusia: sukaldaritzaren modernoa, purua, dietetikoa, oliba olioia, itsasoa, lurra, esnekirik gabeko sukaldaritzaren... Osasunkutsua du kanpotarrentzat.

"Euskal-katalana" sukaldaritzaren aipatu duzu lehen...

Euskadiko sukaldaritzaren eta Kataluniako

"Kresal usaina duen guztia gure sukaldaritzaren atala da eta, hori ukitu berdeekin uztartzen denean, errezetarik onenak lortzen ditugu"

bata besteren ondoan hazi dira, baina bakoitzak ikuspuntu propioa du. Barne mailan elkartrukea dago; horrela, bada, euskal sukaldari gazte batek bost urte eman ditu Katalunian, eta beste bost urte hemen; eta Kataluniako sukaldari batek beste horrenbeste egin du.

Horren atzean, desberdintzen gaituena produktua dela uste dut; hala ere, sukaldaritzaren bion oinarri tradizionala oso garrantzitsua da: errezetategi idatzi gabakoa da; munduko beste herrialde batzuetan dozena erdi errezeta idatzi baino ez dago.

Euskal sukaldaritzaren bereizten duenik badago? Adibidez, hemen dugun arrain eskaintza zabala ez dago beste lekuetan...

Noski, kresal usaina duen guztia gure sukaldaritzaren atala da eta, itsasoa ukitu berdeekin uztartzen denean, errezetarik onenak lortzen ditugu. Bakailoa horren adibide garbia da errezetategi usadiozkoan zein modernoan.

Beste alde batetik, sukaldaritzaren ikasten duen gazte batek Euskal Herrira etorri behar du derrigorrean. Izen handiko sukaldari

Sukaldariaren ustez, gastronomia ogibidea izatetik kultura izatera pasatu da



darien sukaldari erreparatu baino ez da egin behar horretaz jabetzeko. Horiek NBE ematen dute! Gurean katalanak daude, Cuencakoak, Sevillakoak, Galiziakoak... Ona da euren curriculumerako.

Errezetak dagoeneko ez dira isilekoak izaten...

Kontu hori aldatu egin da erabat; izan ere, gremioak -kontzienteki ala inkontzienteki duen guztia besteei jakinaraztea erabaki du, gastronomiari bultzada handia emateko. Gastronomia ogibidea zen lehen; gaur egun, berriz, kultura da. Gero eta jende gehiago dabil kontu hori lantzen, eta Galiziara edo Extremadurara bidaiatu egin da asko ikasten da. Brasilerara joan, eta dozena erdi jate txiki topatuko duzu, ziur asko. Lehen ez zen horrelakorik gertatzen. Sukaldaritzaren mailak gora egin du munduko herri guztietan... Eta Euskal Herrian bertan jatea pasiotzat hartzen dugu! Jatekoen salmenta puntuak asko dira; badira 1.000 jate txiki, eta haietatik 100ek derrigor izan behar dute onak. Baina gaur egun badira herrialdeak, 10 jate txiki baino

ez dituztenak, eta haietako bat oso ona da jada.

Beste kontu bat da produktua, horren eskaintza ez baita Oiartzunen bezain zabala Albaceten; hala ere, horrek ez du esan nahi Albaceten txarto jaten denik.

Gure produkzio sistema oso espezializatua da eta hemen oso tomate ekoizle onak ditugu, oso perretxiko-biltzaile onak, oso arrantzale onak... Izan ere, euskal gastronomiaren gakoa azken emaitzan ez ezik lehenengo sektorean ere badago. Hemen aintzat hartzen dugu lan hori, eta oraindik badago hegaluzea amuz harrapatzen duen

"Gure produkzio sistema oso espezializatua da eta hemen oso tomate ekoizle onak ditugu, oso perretxiko-biltzaile onak, oso arrantzale onak..."

Edurne Brouad AEK Egunaren arduraduna

“AEKren indarra herrietan egiten den lanean datza”

Ekainaren 10ean AEK Eguna 17. edizioa ospatu zen Larrabetzun. Bertan milaka euskaltzale batu ziren; Txorierrikoak ez ezik Euskal Herriko hainbat bazterretakoak ere.

Balorazioa egiteko momentua da.

AEK Eguna partehartzailea nahi genuen eta benetan lortu dugula uste dut. Hainbat talde ibili zen Xiba Jokoan, Mihiluze-AEKn... eta, halaber, jendearen partehartzea ere nabarmena izan zen Esaera Zaharrak eta Bertsoak jokoan, errerian...


Beste alde batetik, larrabetzuarren jarrera abegikorra aipatzekoa da, izan ere beraiek gabe izan izango zatekeen AEK Egunik egin. Uriak eta Txorierrik eman diguten laguntzari esker egin dugu jaialdia eta bertoko euskara taldeek antolatutako AEK Egunaren inguruko asteari erreparatzea baino ez dago hori konfirmatzeko.

AEK Egunak urte biko etenaldia izan du, zergatik hori?

Jaiak denetarik ezagutu du, Hernanin lehengoan egin genuenetik hona. Eta egia esan, azken urteetako AEK Egunak indarra-edo galduz joan ziren pixkanaka-pixkanaka. Hori ikusita, Abetxukoko azken AEK Egunaren ondoren hausnarketa sakona egin behar genuela pentsatu genuen: atsedenditxo hartu, gauzak ondo pentsatu eta AEK Eguna berri bat plazaratu... Emaizak hor daude eta irakurleak epai dezala.

Jaia data aldaketarekin ere etorri da. Lehen ikasturtearen hasieran -urria-azaroa- egiten genuen, indarra hartzeko; baina orain ikasturtearen bukaeran jarri dugu, ikasturte gogor eta luze baten ondoren merezitako saritzat ikusi nahi izan dugulako. Ikasle, irakasle zein edozein euskaltzalek eginda-

“Helduak euskaldundu ezean, gaurko umeak euskaradunak izango dira etorkizunean, baina ez euskaldun osoak, bizitzako edozein arlotan euskaraz aritzeko ez direlako gai izango”



ko lana merezi duela senti dezaten da gure asmoa.

Badira urteak eta urteak euskararen alde lanean, sasoian dago gure hizkuntza?

Euskararen egoera, orokorrean, onera egin duela uste dut eta etorkizun oparoa ikusten diot. Hala ere, oraindik ere lan itzela egin beharko da euskararen etorkizuna bermatuta dagoela esan ahal izateko. Ezin ahaztu, gainera, euskararen kontrako erasoek jarraitzen dutela eta batzuetan benetan izugarriak direla. Baina, edozein kasutan gure esku ere badagoela azpimarratu nahiko nuke eta lanean jarraitu beharko dugula, baina itxaropen eta indar guztiarekin.

Hizkuntzaren etorkizuna umeengan dago; gurasoek ere badute zer egin horretan...


Helduak euskaldundu ezean ezer gutxi balio du haurrak euskalduntzeak. Gaurko umeak euskaradunak izango dira etorkizunean, euskara jakingo dute; baina gure ustez, ez dira euskaldun osoak izango, bizitzako edozein arlo eta unetan euskaraz aritzeko gai izango ez direlako. Beraz, “yo

no sé, pero mis hijos sí” esaldi famatu horrek ez du, inondik inora, dionak ematen dion balioa. Hori etengabe diona bere burua engainatzen ari da nahita ala nahi gabe.

Aurten 30 urte bete ditu AEK-k Txorierrin eta Txepetxa euskaltegiak 20. AEK Eguna urteurren horiekin lotu da...

AEK-k urte luzeak darama helduei euskara irakasten. Beste asko ere badabilta behar horretan, baina jendearekiko hurbiltasuna da, nire ustez, AEK-ren dohainetari-ko bat. Urte hauetan guztietan euskara jendearengana hurbildu eta horiei gauzak errazten saiatu gara eta horregatik gaude Euskal Herri osoan barreiatuta. Horregatik iristen gara beste asko iristen ez diren eremu-eta horregatik ditugu euskaltegi eta ikasguak eskualde gehienetan, bizileku euskaldun zein erdaldunetan. Txorierriko AEK eta Txepetxa euskaltegia horren eredu garbia dira eta 30 urtean egindako lana ere goraiatu nahi izan dugu aurtengo AEK Egunean, AEKren indar osoa horretan datza-eta: herrietan egiten den lanean, hain zuzen ere.

Argazkiak: Bestorrene



Kitchen sukaldeak

Parroquia Parroquia II
 E. GARCERAN
 48100 BILBAO (Bizkaia)
 T. 94 430 00 00
 F. 94 430 00 00
 www.kitchenkalea.com

www.kitchenkalea.com

1.000.000 €
 100.000 €
 100.000 €

Bertoko sukaldeak, kalitate onko sukaldeak.



Zure sukaldean %10ko **DESKONTUA**

1.000.000 € IVA INKLUZITUEKIN 100.000 € IVA INKLUZITUEKIN 100.000 € IVA INKLUZITUEKIN

100.000 € IVA INKLUZITUEKIN 100.000 € IVA INKLUZITUEKIN

Osasuna eta erlaxazioa, zentro bakar batean

Martxoan Larradent Poliklinika ireki zen Ikatza jauregian, Larrabetzuko plazan. Zentro bakar batean lau zerbitzu eskaintzen dira: odontologia, podologia, dietetika eta masajea.

Bost emakumek osatzen dute Larradent Poliklinikako lanbide taldea: Ana, Itziar, Carmen, Leire eta Raquel. Ekipo gaztea da, dinamikoa eta bezeroarekin atsegina. Larradent Poliklinikako profesionalen araua bezeroari ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da eta, horretarako, lagunarteko trataera ematen diote. Umore oneko profesionalak ere badira, izan ere, ezaugarri hori izatea garrantzitsua da pazienteekin harremanak izateko.

Larradent Polikliniketan lau kabinete daude, elkarren osagarri direnak.

Odontologia kabinetea: hartz-haginen osasunarekin zerikusia duten zerbitzu guztiak ematen dituzte; periodontzia, implantologia, ortodontzia, protesiak.... Laborategi propioa dute eta, ondorioz, azkarrago egin ditzakete protesiak eta beste hainbat lan. Hartz-haginen estetika zerbitzua ere badago eta, besteak beste, hartz piercingak jartzen dituzte.

Podologia kabinetea: oinetako patologia guztiak tratatzen dituzte: gogorrune eta maskur-kentzea, papilomak, haragian sartutako atzazalen tratamendua eta ondoen infekzioak, esate baterako. Plantilla ortopedikoa eta silikonazko protesiak egiten dituzte.



Dietetika kabinetea: dieta terapeutikoa zein argaltzekoak egiten dituzte. Halakoak dieta pertsonalizatuak izaten dira eta erabat naturalak, pilularik erabiltzen ez dutelako. Pazienteari asteroko jarraipena egiten diote pisua, gorputz-koi-

pea eta likidoak kontrolatzeko.

Masaje kabinetea: esku terapiak egiten dituzte; haien barruan daude masaje terapeutikoa, erlaxagarria, linfa-drainatzea zein pazienteak behar duen beste edozein masaje mota. Terapia alternatiboak ere



Poliklinika Ikatza jauregian dago. Hori XVII. mendeko eraikina da

Larradent Poliklinikako lanbide-taldea gaztea da, dinamikoa eta atsegina pazientearekin

eskaintzen dituzte; adibidez, garezur eta hezur sakroren osteopatia, kinesiologia, Bach-en loreak, aurikuloterapia eta abar.

Zerbitzu horiek guztiak edozein adinetako pertsoneri zuzenduak daude. Aurrekontuak pertsonalizatuak izaten dira eta finantzatzeko aukera ematen da.

Larradent Poliklinikak ordutegi hau du: 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara; hala ere, ordutegia alda daiteke, pazienteen beharrezanetara egokitzeko. Kasu puntualetan eta patologiarekin arabea, etxeko zerbitzua ere ematen dute.

Hegalariak CD

“Areto-futbola ez da futbolaren anaia txiroa”

Hegalariak Sondikako areto-futboleko taldeak 10 urte bete ditu aurten. Taldea 90eko urteen hasieran sortu zen eta 1996-1997 denboraldian federazioan sartzea erabaki zuten. Oskar Eguskiza taldearen sortzaileetariko bat izateaz gainera, jokalaria ere bada. Taldearen gorabeherak berak kontatu dizkigu.



2055-2006 denboraldiko plantilla

Maila igoera birritan izan duzue. Halakorik espero zenuten taldea federatu zenu-tenean?

Egia esateko, ez. Federazioan sartu ginenean, gure helburuak izan ziren lagunartean jokatzeko, kirola apur bat egitea eta geure burua sasoi onean izatea. Denboraren poderioz, talderik onenen artean egon gitezkeela ikusi genuen eta 1999-2000 denboraldian lehenengo maila igoera (lehenengo erregionala) lortu genuen. Bigarrena (erregional gorena) 2004-2005 denboraldian izan zen eta hori Txorierritik kanpoko jokalaria hartzeari esker lortu dugu, izan ere, horiek kalitate tekniko handiagoa eman digute.

Azken 10 urte hauetan, zeintzuk izan dira oroitzapen onak eta txarrak?

Kuriosoa da, baina oroitzapen onak ez dute lotura zuzenik kirol garaipenekin. Poztasunik handienak izan dira partiden aurreko tertulia, jokalaria eta haien emazteekin izandako askariak, partiden ostean seme-alabak zelai barrura sartzea, jende askok klubarekiko konpromisoa duela ikustea... Beste momentu zoragarri bat X. urteurrena izan da: ekainaren 3an bazkaria egin genuen eta bertan klubeko bazkideak eta lehengo eta oraingo jokalaria batu ginen... Itzela!

Unerik latzenek, berriz, badute zerikusia

kirol-aldearekin. Lehenengo erregionalera igo osteko urteak oso gogorrak izan ziren, gogor borrokatu behar izan genuen, kategoria ez galtzeko.

Aurten onenen artean izan zarete, nola baloratzen duzue denboraldia?

Oso ondo. Erregional gorenean berriak ginen eta, kategoria hori mantentzeko, izugarri sufritu beharko genuela pentsatzen genuen, baina ez da hala izan. Denboraldiaren azken txanpara heldu gara eta subtxapelketa irabazteko aukerak izan ditugu, gainera.

Ezin izan da igoera lortu, zer falta izan zaizue?

Denboraldiaren hasieran fitxatu genituen jokalaria biri esker, lehiakorragoak izan

“Gure ibilbideak emandako poztasunik handienek ez dute zerikusirik kirol garaipenekin; beste hauek dira: partiden aurreko tertuliak, lagunaren arteko askariak, seme-alabak zelaian...”

gara; hala ere, beharbada ez dugu sinistu igoetzeko gai gizona. Gainera, gure kapitainak denboraldi osoa galdu du lesio baten ondorioz. Eta beste jokalaria bik ere une latzak bizi izan dituzte... Izan ere, batzuetan jokalaria guztiak talde moduan aritzea askoz inportanteagoa da, jokalaririk onena izatea baino.

Zer espero duzue hurrengo denboralditik?

Clemenek eta Joseanek taldea utziko dute, baina klubarekin harremana izaten jarraituko dute. Beste jokalaria jarraitu egingo dugu taldean, eta Barakaldo eta Sondikako jokalaria hartzen ahaleginduko gara. Ustekaberik egon ezean, datorren urteko talderik puntarengoetariko bat izango gara, ziur asko. Baina batek daki, umilak izan eta pixkanaka-pixkanaka joan beharko dugu.

Beste alde batetik, Sondikako gazteak gu-



Hegalariak taldeko jokalariek eta jokalaria ohiek partida jokatu zuten 10. urteurrenaren egunean

raera etortzera animatzen gabiltza, baina zaila ikusten dugu, entrenamenduak astean bitan egin behar direlako eta futbola askoz erakargarriagoa delako. Gainera, Hegalariak taldeko jokalaria izateak konpromiso batzuk eskatzen ditu: loteria saldo behar izatea, partidak arbitratzea... Beno, borrokan jarraitu beharko dugu eta ea datorren urtean plantilla erdia Sondikakoa den! Kadete taldea ere osatzeko asmoa dugu.

Jokalaria zuzendaritza-lanetan zabilatzate, web orrialdea (www.hegalariak.net) prestatu duzue... Gogorra da kirol amateurra izatea, ezta?

Bai, baina orain urte batzuk askoz gogorragoa zen: Gorondagane herri ikastetxeko zelai irekian egiten genituen entrenamenduak, aldagelak geuk zabaldu eta itxi behar genituen, ateetan sareak jarri behar... Orain Goronda Beko kiroldegian aritzen gara eta gure kezka bakarra bertzea eta jokatzeko da. Horren meritua gure delegatuak (Sobri) du, izan ere, berak kanpoko taldeari ostatua emateko ardura hartu du, publizitatea jartzen du, erlojua... hau da, jokalaria lehen egin behar genituen lanak egiten ditu.

Web orria denbora kentzen dit, baina poztekoa da ikustea bertan jendea sartzen dela eta iradokizunak botatzen dituztela hura hobetzeko.

“Batzuetan jokalaria guztiak talde moduan aritzea askoz inportanteagoa da, jokalaririk onena izatea baino”

“Futbol aretoa diziplina erabat polita da, asko eskatzen duena, lehia handikoa eta esker onekoa”

Zeintzuk dira aurre egin behar diezuen zailtasunak?

Lehenengo eta behin, zaila da gure inguruko jokalaria fitxatzea. Ez dakit beldur diren lana ez ote duten ondo beteko, kirolaz aspertuta dauden... Sondikako lagun berriak taldean izateko itxaropena izaten dugu urtero, baina ez dugu lortzen...

Eta diru aldetik?

Sobri gurekin dabilenetik hona, kontu hori konponduta daukagu gutxi gorabehera.

Gure laguntzaileak Sondikako enpresak dira eta horiei publizitatea eskaintzen diegu gure kamisetan, web orrian, partidaren berri ematen duten karteletan, loterian, egutegietan... Horrezaz gainera, “Sondikako Udala” Areto-futboleko Txapelketa arbitratzen dugu eta horrek diru kopuru handia ematen digu. Jai batzordeko txosnan ere laguntzen dugu eta Udalak dirulaguntza ematen digu urtero. Arbitroak, futbolarien lana, materiala, botikina eta abar kontuan hartuta, 6.000 euro gastatzen dugu urtero.

Futbolak zale gehiago dituen kirola da. Sondika Futbol Taldearekin lehia aritzea zaila izango da...

Lehen aipatu dudana bezala, aurre egin behar diogun arazorik handiena areto-futboleko aritu nahi duen jenderik ez egotea da. Sondikako gazteentzat zaila da lehenengo ekipora joatea, eta horregatik nahia go dute edozein futbol taldeetan jarraitu. Baina urte txar pare baten ostean, desanimatu eta ez dute jokatu nahi izaten. Zaila da gazteei buruan sartzea areto-futbola ez dela futbolaren anaia txiroa, gezurra dela futbola utzi duten “zaharrak” baino ez direla horretan jokatzeko. Areto-futbola diziplina erabat polita da, asko eskatzen duena, lehia handikoa eta esker onekoa. Gainera, nabarmendu eta maila handiko taldeetan jokatzeko aukera ematen die.



ARLAN

Avanzada Errepidea 7 48960 Erandio (Bizkaia) Teli 94 471 19 44
www.arlan-serv.com / www.arlan.biz



Optika Ikuslan
Bilaka erlogi erakunde,
Kantabriako lehenak
Eguzkiak eta kontaktak
Lehenengo maila.

Or. Erandio, 1 Erandio 48960 ERANDIO (BIZKAIA)



TALLES JUAN ANDRÉS
SERVICIOS DE ALQUILER DE VEHICULOS,
PARTES Y ACCESORIOS

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)



LEANDRO LANDETA

PARAGITEGIA-ORDAITEGIA
Or. Erandio, 1 - TEL. 94 402 10 10 - 48960 ERANDIO (BIZKAIA)



LUTERIA LEZAMA

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)



BAR TXIKI


POSTALAK
TORTILAK

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)



ZAMUDIO

Lehenengo Maila - Erandio, 1 Erandio, 48960 ERANDIO (BIZKAIA)




Derioko merkatariak HIESaren aurka

Hartutako Inmunoeskasiaren Sindromearen (HIESa) lehenengo kasua duela 25 urte agertu zen. Gaur egun birusak 40 milioi pertsona harrapatu du eta horietatik 25 milioi Afrikan bizi dira. HIESaren deskubrimenduaren 25. urteurrena dela-eta, Bristol-Myers Squibb farmazia-konpainiak *One Vision* argazki erakusketa zabaldu du Europan zehar. Horrela, bada, Londresen, Parisen, Madrilen eta Bartzelonan jarri dute, eta Txorierrin ere ikusteko aukera izan dugu.

Ekainaren 12tik 17ra bitartean, *One Vision* erakusketa izan zen Derion. Ekimen honetan 22 komertziozko parte hartu zuten. Horrela, bada, komertzio bakoitzeko erakuslehoan erakusketaren argazki bat jarri zen, bere azalpena eta guzti. Erakusketa HIESaren aurkako Euskadiko GKE-en Plataformak antolatu du. Talde horrek, gaixotasunaren inguruan dauden estigma eta diskriminazioaren aurka egitea du helburu.

Argazki erakusketa ekainaren 12an inauratu zen eta bertara Lander Aiarza Derioko alkatea, T-4 elkarteko Arrate Agirrezabal eta Iñaki Perea, Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkarteko presidentea bildu ziren, besteak beste. "HIESa edonork izan dezakeen gaixotasuna da, eta ezin dugu ahaztu zeintzuk diren bere ondorioak. Momentu honetan oso inportantea da gaixotasun horren kontra borroka egitea", esan zuen Aiarzak. Era berean, eskerrak eman zizkion plataformari "gure herria aukeratzeaga-



tik, erakusketa hartzeko" eta merkatariari "erakusketarekiko izan duten jarrera onagatik. Oso proiektu inportantea da herriko merkataritzarako".

Beste alde batetik, Perea merkatarien jarrera ere azpimarratu zuen, "HIESa ahaztuta dugun kontua da eta beharrezkotzat jotzen dugu gaixotasun hori dagoela jendea-ri gogoraraztea. Gure erakuslehoak hori egiteko tresna dira. Positiboa dela uste dugu eta etorkizunean kanpaina gehiagotan parte hartzea espero dugu".

Arrate Agirrezabalek HIESak dakarren arazoa kalera ateratzeko beharra nabarmendu zuen, "hor dago, eta argazki batek hausnarketa egitera bultzatu ahal gaitu". Era berean, herri aberatsek, oraindik ere, zer egin badutela gogoratu zuen, "batetik, herri txiroei erreparatu eta gaixotasun horren kontrako txertoa aurkitzen saiatzea, eta bestetik, dirulaguntzak ematea, herri txiroetakoek jan zein tratamenduak hartu ahal izateko".

MARMOLGINIZA
GOYO
BETIKATUTAKO GAITURIKETA
LURRIK ETXETIKETAK
Egiteko gaiturik 1. eta 18. Kaleren
GOMIENBET (Bilbao)
Telefonoa: 94 454 02 00 - Fax: 94 454 50 63

**CREBERIK
IAZI**
Egunko masa eta
Menu berrak
MILKUPA 7 - Telefonoa: 94 454 11 93 - 17000 gurea

Osteopatia zentroa
Jana M. Mazarin
(Osteopatia Terapeuta)
Mazarin
Lanaberru 1. era - 48101 OROKO
Tel: 94 454 10 20 - Mazarin@osoa.es
www.osoa.es - osoa@osoa.es

PQRemove, troyanoen aurkako erreminta

Nabload.U eta Banker.BSX troyanoek kalte handiak sortu dituzte munduko milaka ordenadoretan. Hori dela eta, Panda Software konpainiak PQRemove erreminta jarri du erabiltzaileen eskura. PQRemove edozein ordenadoretan troyano mota horiek detektatu eta ezabatzeke gauza da, eta hurrengo helbide honetatik deskargatu ahal da: www.pandasoftware.es/descargas/utilidades.

Panda ActiveScan birusen aurkako soluzioaren arabera, Banker.BSX eta Nabload.U mundu osoan zehar eraso gehien egiten dituzten birusak dira. Horrela, bada, birus horiek elkarrekin aritzen dira, ordenadoretan instalatu ahal izateko. Prozesua hurrengo era honetan gauzatzen da: erabiltzaileak MSN Messenger bidez

mezu bat jasotzen du. Mezu horretan "ve esa vaina" testua eta Interneteko helbide bat azaltzen dira. Erabiltzaileak link hori bisitatuz gero, Nabload.U troyanoa deskargatzen da sisteman eta, era berean, horrek Banker.BSX troyanoa deskargatzen du.

Azken birus horrek banka on-lineko sarbide-gakoak lapurtzen ditu eta horretarako, erabiltzaileak nabigatzen dituen web orriak kontrolatzen ditu. Troyanoak datuak hartu eta korreo elektronikoko helbide batera bidaltzen ditu. Birusen sortzaileak datu horiek jasotzen ditu bertan, eta, ondorioz, iruzurrezko eragiketak egin ahal ditu. Horrezaz gainera, Banker.BSX-k mezu amarrutsuak bidaltzen dizkie MSN Messenger dauden kontaktuei.



Puzzle teknologikoak, ordenadorean egiteko

Elhuyar Fundazioak ordenagailurako puzzle teknologikoak sortu berri ditu. Horiek 12 urtetik gorako lagunei zuzenduta daude, eta gazteek, jolasaren bitartez, teknologia eta energiaren mundua ezagutzea dute helburu. Horrela, bada, puzzleak egin ahala hainbat azalpen jasoko dituzte jokalariek, eta puzzle bakoitza amaitu ostean, gaiari buruzko informazioa emango zaie, bideoen eta 3Dko irudien bitartez. Jokalariek 50 puzzle baino gehiago izango dute eskura.

Hezberri aldizkaria

Euskal Herriak Bere Eskolak ekimenak Hezberri aldizkari digitala kaleratzen du bi hilerik behin eta ekainean 4. alea atera dute. Hezberri aldizkaria hurrengo helbide honetan irakur daiteke:

www.euskaleskola.org

Comunicación
TXORIFRRI

Jose Antonio Soro

TXAPA ETA LABE PINTURA

Txalapaint sarratsua
Valencia (E. Herrialdeak)
www.txalapaint.com

ELABORACIÓN DE PRODUCTOS ALIMENTARIOS

ELABORACIÓN DE PRODUCTOS ALIMENTARIOS

Elaboración de productos alimentarios
bajo el control de la autoridad sanitaria.
Garantía de calidad.

Almería, 18
C/Alfonso XIII, 10
Tf: 95 95 10 10
www.elaboracion.com

OBRAS Y REFORMAS

Garroba

Elaboración de productos alimentarios
bajo el control de la autoridad sanitaria.
Garantía de calidad.

Almería, 18
C/Alfonso XIII, 10
Tf: 95 95 10 10
www.elaboracion.com

Garmendia ardoak

Garmendia ardoak

www.garmendia.com
Tf/Tel: 94 422 10 42

GUEDAN

Guendian deportivos, S.L.

www.guendian.com

www.guendian.com

HORTZ KLINIKA

Hortz Klinika

www.hortzklina.com

www.hortzklina.com

abar...

"Musikarako zaletasuna berez etorri zitzaigun, adoleszentzian, giro euskaldun baten bila eta Benito Lertxundiri esker"

ko zen beldur ginen, baina ez, goizeko zazpiak arte hitz egiten egon ginen, eta konprobatu genuen tipo jatorra zela. Baina, nahiz eta mitoa apurtu, Benito hor dago eta guk ordurako bere musika barneratuta geneukan jada, musikaren eta euskaltzaletasunaren mamia sartuta.

I.: Musikaz gain, berak eduki duen bilakera edo bere giza bilakaera kontuan izanda, gu nahiko ibilbide paraleloan ibili garela uste dut.

J.: Oteizak esaten zuen artistak beti daudela herri batean etorriko diren arlo berriak herriari aurkezteko. Eta Benito gurekin beti egon denez, berak aurkeztu digu bere bizitzaren plan berria, eta igual, berarekin batera joan gara. Gu baino zaharragoa da, baina bere bizitza eta gurea parekatuta doaz. Eta hori da artista, artistak ematen dio herriari informazio bat, eta guk erabili egiten dugu.

Eta orain zer egiten duzue?

I.: Jarraitzen dugu gauza informalak egiten, deitzen digutenean. Aspaldi honetan, Josu Naberanekin gabiltza. Bere *Hitzen koba* azken liburuan, - euskal sustraiak aztertuz gai zabalak, aberatsak eta sakonak tratatzen dituen horretan-, Josuk erroekin egiten ditu aurrehistoriako poesia antzeko



Zerutarrek Orbelak airez aire abestiarekin irabazi zuten Bizkaiko Euskal Kantu txapelketa 95ean

"Oteizak esaten zuen bezala, artistak beti daude herri batean etorriko diren arlo berriak herriari aurkezteko"

batzuk, eta guk herriko doinuak erabiliz ahotsa jartzen diegu. Honelakoetara jende gutxi joaten da baina gogoz egiten dugu eta gauza polita ateratzen da.


J.: Horretaz aparte, Beti Jai Alai dantza taldearekin ere jarraitzen dugu harremanetan. Uztailaren 2an, esate baterako, Loiuo jaietan izango gara.

Eta nolako planak dituzue etorkizunera-ko?

J.: Berdinak edo antzekoak. Alde batetik,

badakizue guk jatetxe hau utziko dugula, salgai ipini dugu, eta Emerandora joango garela beste jatetxe txikiago bat irekitzera. Orduan, suposa daiteke beste lan mota bat izango dela eta denbora gehiago izango dugula. Beraz, gogoia dugu musikarekin jarraitzea. Orain arte bezala, baina baita beste proiektu berri batzuk jorratzeko ere. Esate baterako, ez dakit inoiz egingo dugun baina buruan badugu herrietako jaietatik txosna bat muntatzeko ideia. Txosna berezi horretan, edariak eta taloa, eta honelakoak saltzeaz gain, gu barruan kantatzen ibiliko ginateke, mikrofono txiki batekin, beharrea eta kantatzen. Gure jatetxean ere ahalegindu gara euskal kulturaren aldeko beste zerbait egiten. Txosna badaukagu, giroa sortzen badakigu, ondo pasatzeko asmoa ere bai, denbora apur bat hartzen badugu...

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta automasaje-ko koltxonetak.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
10 urte
Irabazlea:
M^o Carmen Alvarez



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museoa, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

Non egin da azoka ekologikoa?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Tuterako kukuluak

Osagaiak:

- Kukuluak
- Piper berdea
- Tipulin bat
- Tomatea
- Arrautza bat
- Antxoiak
- Gatza
- Oliba orioa
- Ozpina



Prestatzeko era:

Kendu kukuluari kanpoko orria. Garbitu eta lau zati egin. Plater baten ipini eta ganetik binagreteara bota.

Binagreteara egiteko: piper berde erdi bat, tipulin zati bat, arrautza egosi bat, tomate erdi bat zurituta eta ura ondo kenduta; honek danak txiki-txiki egin eta bota orioa, ozpina eta gatza. Azkenik antxoila bat ipini kukulu zati bakotxari ganean eta jateko prest dago. On egin!



Mari Tere Onaindia

Zurrukutuna

Osagaiak (4 laguntzat)

- 8 baratxuri-atal
- Kipula 1
- 1/2 piper berdea
- 250 g. bakailao (gezatua eta papurtua)
- 3 piper txorizero (urtean izango ditugu)
- 1/2 sopako ogia
- 1 l. haragi-salda
- 1/2 l. ura
- Olioa

Egiteko era:

Lapiko batean 5-6 olio koilarakada bota

eta sutan jarriko dugu. Baratxuri-atalak zuritu ostean, lapikora botako ditugu. Kipula eta piperra txikitu eta horiek ere botako ditugu lapikora. Gorrituta daudenean, bakailaoa eta piper txorizeroen okela gehituko ditugu. Suezitzen utziko dugu apur bat, eta ondoren, sopako ogia botako dugu (hori txikitu beharko dugu aldeztu aurretik). Azkenik, haragi salda eta ura bota, eta su motelean irakiten utziko dugu 25-30 minutuan. Zurrukutuna zopontzi batean zerbitzatuko dugu.



www.karlosnet.com

WARRISTAS INFORMÁTICAS
EMPRESETARAKO INFORMATIKA SAREEN MANTENIMENDUA SERBITZU TEKNIKOA
 Ind. Iruñerriaren 1. Sol. 3.º Bloque 1. Planta 3
 48170 Zamudio - Tfn: 944521544

Kudeaketa- eta Sozietateen Biraikuntza Zentro Aurreratua
SOGECAR
Tratamendu Ionoak
 -Enbrutatuak
 -Agortulako tratamenduak
 -Ura onarazteak
 -Automatu
 Hondakinen kudeaketa orria
 Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio
 Telefonoa: 944 877 177 - Faxa: 944 522 018

Zaragoza Lantekak
 Irteerakariak, 32
 Telefonoa: 94 461 51 54
 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
 www.zaragoza.com
 E-mail: zaragoza@zaragoza.com

WARRISTAS - INFORMÁTICAS
 Dagoen produktuen inguruan, gurekin harremanetan, zurekin, zurekin, zurekin.
 Plazaren aurrealdea
 Zamudio - 48170
 Telefonoa: 944 521 544

Sabina Askolitzaga
 Aragoiaren Erregeak
 Sabina
 409 47 57 46
 48170 ZAMUDIO
 48170 ZAMUDIO

Agenda

Azokak

Loiu

–Azoka ekologikoa, uztailaren 9an, Larrondoko pilotalekuan.

Dantza agerraldiak

Sondika

–Portugaleteko Nazioarteko XXXII. Folklore Jaialdia, uztailaren 21ean, 22:30ean, Goronda Beko kiroldegian. Orenburgo-Vietnam-Euskadi.

Derio

–Gjesdalringen dantza taldea (Norvegia), uztailaren 31n, 13:00etan, Aldekonen.

Erakusketak

Sondika

–Sondikako Aire Libreko X. Pintura Lehiaketan saritu eta aurkeztu diren lanetatik egindako hautaketaren erakusketa.

Hitzaldiak

Lezama

–Santiago bidea eta Behe Erdi Aroko Bizkaia, Juan Jose Larrea Conde EHUko irakaslearen eskutik. Uztailaren 5ean, 18:00etatik 19:00etara, Kultura Aretoan.

Irteerak

Loiu

–Menorca, irailaren 12tik 19ra. Izen-emaitea: uztailaren 10etik aurrera.

Zamudio

–Pirinioak, uztailaren 14tik 16ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Laredo, uztailaren 16an, Adintsuen Elkarteak antolatua.

–Baiona-Santa Grazi, uztailaren 29an eta 30ean.

Lezama

–Aralar, uztailaren 8an, Gailur mendi taldeak antolatua.

–Pirinioak, uztailaren 21etik 25era, Gailur mendi taldeak antolatua.

–Eurodisney, urriaren 11tik 15era, beste udal batzuekin batera antolatua. Izen-emaitea: uztailaren 3tik 11ra, liburutegian.

Larrabetzu

–Pozalaguako kobazuloak, uztailaren 5ean.

–Abra Aquariuma, uztailaren 12an.

–Cabarcenoko parkea, uztailaren 19an.

Jaiak

Derio

–Santiago eta San Inazio, uztailaren 24tik 31ra, Aldekonen.

Lezama

–Goitioitza, uztailaren 8an eta 9an.



Udalekuak

Sondika

–8tik 17 urtera arteko ume eta gazteentzat: uztailaren 10etik 14ra. Friaseko kanpalekua (Burgos).

–3tik 12 urtera bitarteko gaztetxoentzat: uztailaren 21era arte, Ludoteka I eta II.n. Lantegiak, kirola, jolasak...

–Gaztetxea: uztailaren 21era arte. Lantegiak, ikastaroak, zinema...

Zamudio

–13tik 17 urtera arteko gazteentzat: uztailaren 3tik 28ra.

–6tik 12 urtera arteko ume eta gaztetxoentzat: uztailaren 3tik abuztuaren 25era.

Lezama

–4tik 15 urtera arteko ume eta gaztetxoentzat: uztailaren 3tik 21era. Tailerrak, kirola, irteerak, hipika...

RESTAURANTE
ALBERTO
EVERIGINTI

Reserva tu mesa en el restaurante de la casa de la familia Everiginti en el pueblo de Everiginti. Tel: 945 50 11 22. www.everiginti.com

FONTANERIA DOBARAN

Reparación - Instalación
• Electrofontanas
• Baños
• Bañeras
94 453 5860
94 75 9884
Mostr. 4-4850 SONDICA

pro audio

Equipos musicales IP
MP3, MP4
Tel: 945 50 11 22
www.proaudio.com

GOIKO
TABERNA

Bar-Restaurante
Comidas y bebidas

- Bar-Taberna
- Comidas y bebidas
- Copacabana

Trabaja y vive en un mundo de tradición y calidad.

KIMA

Landaotekak

LANDARE APATINGARRIA
Calle de P. de HERRERA 11, 48100 Lezama (Bizkaia)

G GARAIOLTZA, S.A.
PRINCIPALES REPARTIDORES

LEZAMA







ETXERREZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN MAILAKO ERREKUNTZAK, LEHENIK HANDIAK,
ORDAINTZEN DIBERTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Udako lehen astea, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaltzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta helburuetan jantziaren bitartez, berrikuntza eta inbentarioa berritu nahi dugu. Baina, Biziaren erantzuleak izan behar ditugu.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsora, S.A.





26

Erreferentziako

hantela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekir eta

galnera...

Bidaia-

asistentziako

doako asagurua

abantallak era

guztietako 2.000

establizimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko gitarra.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian